
XII. BEASAINGO
MENDI
ASTEA
Urriaren 21etik 26ra :: Igartzako jauregian :: 19:30ean
Jon Aizpuru
Martxan jarri eta listo!
Urriak 21 :: astelehena
Fidel Mendia
Mendi eskia Europako ekialdean
Urriak 22 :: asteartea
Juan Vallejo
Nire mendiak
Urriak 23 :: asteazkena
Sebastián Álvaro
Bizitza ertzean
Urriak 24 :: osteguna
Fátima Gil
Patagonia erraietaraino
Urriak 25 :: ostirala
Eskalada praktikak
Antzizar kiroldegiko rokodromoan
Urriak 26 :: larunbata
Antolatzaileak
Arrastaka
AIZKORRI
MENDIZALE ELKARTEA
Laguntzaileak
Beasaingo udala
Ikolansports


XII. BEASAINGO
MENDI
ASTEA
Urriaren 21etik 26ra :: Igartzako jauregian :: 19:30ean
Martxan jarri eta listo!
Urriak 21 :: astelehena
Fidel Mendia
Mendi eskia Europako ekialdean
Urriak 22 :: asteartea
Juan Vallejo
Nire mendiak
Urriak 23 :: asteazkena
Sebastián Álvaro
Bizitza ertzean
Urriak 24 :: osteguna
Fátima Gil
Patagonia erraietaraino
Urriak 25 :: ostirala
Eskalada praktikak
Antzizar kiroldegiko rokodromoan
Urriak 26 :: larunbata



# XII. BEASAINGO MENDI ASTEA

Udazken Kulturalarekin batera, hemen da urteroko klasiko bat, ***”Beasaingo Mendi Astea”. Urriaren 21etik 26ra*** egingo da. Ikusentzunezko guztiak ***Igartzako Jauregian*** izango dira ***19:30ean***. Antolatzaileak ***Arrastaka Mendi Taldea eta Aizkorri Mendizale Elkartea*** dira, ***Beasaingo Udalaren*** laguntzarekin.

Hiru ikusentzunezkok eta bi hitzaldik osatuko dute “Beasaingo Mendi Asteko” hamabigarren edizioa, mendiko esperientziak ezagutu, elkartrukatu eta partekatzeko parada ezinhobea.

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere, mendizaletasunaren, eskaladaren eta eskiaren arloan ezagunak diren aurpegiak ikusi ahal izango ditugu eta bertatik bertara kontatuko dizkigute mendian bizitako esperientziak.

Mendizaletasunean eta eskaladan emakumezkoak duen garrantziari ere protagonismoa eman nahi izan diogu eta punta-puntako kirolari bat izango dugu gonbidatuen artean.

Aurten, J***on Aizpuru, Fidel Mendia, Juan Vallejo, Sebastián Álvaro*** eta amaiera emateko ***Fátima Gil*** izango ditugu gure artean.

Arrastaka Mendi Taldea

AIZKORRI MENDIZALE ELKARTEA

Beasaingo udala

# XII. BEASAINGO MENDI ASTEA

Llega el Otono Cultural y con él un clásico,***"Beasaingo Mendi Astea".*** Se celebrará entre ***los días 21 y 26 de Octubre***. Todas las proyecciones se celebrarán ***en Igartzako Jauregia*** a las ***19:30 h.*** Está organizada por ***Arrastaka Mendi Taldea y Aizkorri Mendizale Elkartea***, con la colaboración del ***Ayuntamiento de Beasain***.

Tres proyecciones y dos conferencias darán forma a la duodécima edición de la "Beasaingo Mendi Astea", el marco idóneo para conocer, intercambiar y compartir experiencias en torno al montañismo.

Como en ediciones anteriores, este año contaremos con la presencia de caras conocidas en el mundo de la montaña, la escalada y el esquí que nos relatarán en primera persona sus experiencias vividas en la montaña.

También hemos querido dar protagonismo a la mujer en los deportes de montaña y escalada contando con una figura destacada.

Este año estarán con nosotros: ***Jon Aizpuru, Fidel Mendia, Juan Vallejo, Sebastián Álvaro*** y como colofón ***Fátima Gil***.



## MARTXAN JARRI ETA LISTO!

**JON AIZPURU**
Urriak 21, Astelehena.
Igartzako jauregian. 19:30ean

Astelehenean emango zaio hasiera zikloari, urriaren 21ean, ***“Martxan jarri eta listo!”*** hitzaldiarekin, ***Jon Aizpuru*** Ultra Trailetako lasterkariaren eskutik.

Jon Aizpuruk ez du aurkezpen beharrik ere, aurten azkenean ehunmilak-19-ko garailea izan da. Jonek bertatik bertara kontatuko dizkigu bizitako sentsazio eta esperientziak.

*“2013an mendiko lasterketetan hasi zen Beasaingo proba batean (Arrastaka Mendi Taldeak antolatzen duen G2 Handiak proban hain zuzen) parte hartzeko helburuarekin. Urteen joan-etorrian, hasieran kirol erronka moduan hasi zena bere bizitza pertsonalaren parte garrantzitsu izatera igaro zen. Diziplina honetan murgildu aurretik, Jonek bazuen lasterketetan parte hartzeko ohitura, baina zerikusi gutxi zuten mendiarekin.*

*Urte guzti hauetan, askotariko eta munduko herrialde ezberdinetako lasterketetan hartu du parte (Euskal Herrian, Andorran, Frantzian, Australian, Hong Kong-en, etab.) eta momentuz ildo berean jarraitzeko asmoa du. Eskainiko digun hitzaldian, bere ibilbidea eta etorkizunera begira dituen erronka berriak xehetasun gehiagoz ezagutzeko aukera izango dugu”.*

---

El ciclo echará a andar el lunes, día 21 de octubre, con la conferencia ***“Martxan jarri eta listo!”*** de la mano del corredor de Ultra Trail ***Jon Aizpuru***.

Jon Aizpuru no necesita presentación, ha sido flamante ganador de la ehunmilak-19. Jon nos trasmitirá en persona sus sensaciones y experiencias.

*“En 2013 comenzó a adentrarse en el mundo de las carreras de montaña con el objetivo de participar en una prueba que se celebra en Beasain (concretamente la Goierriko 2 Handiak que organiza Arrastaka Mendi Elkartea). Con el paso de los años lo que empezó como un reto deportivo paso a ser una parte principal dentro de su vida personal. Antes de adentrarse en esta disciplina Jon acostumbraba a participar*

*en carreras, pero apenas tenían relación con la montaña.*

*En todos esto años ha participado en carreras de distinta índole y de distintos países del mundo (Euskal Herria, Andorra, Francia, Australia, Hong Kong, etc.) y, en principio, su idea es la de seguir haciendo lo mismo. En su charla tendremos oportunidad de conocer de una mejor forma su trayectoria y, también, sobre los retos que tiene planteados de cara a futuro".*





## MENDIKO ESKIA EUROPAKO EKIALDEAN
## Esquí de montaña al Este de Europa.

**FIDEL MENDIA**

Urriak 22, asteartea

Igartzako jauregian. 19:30ean

Asteartean, hilak 22, ***Fidel Mendia*** izango dugu gure artean ***"Mendiko eskia Europako ekialdean"*** lana aurkezteko.

Fidel Iruñean jaiotako mendigoizale polifazetikoa da eta hainbat espediziotan hartu du parte, besteak beste, Yosemiten, Alpeetan, Kaukason eta Himalaian eskalatuz.

Mendiko argazkilaritzako zale amorratua ere bada eta sari ugari irabazi ditu lehiaketa eta txapelketetan.

Azken urteotan muturreko eskian edo free ride deritzonean espezializatu da. Elurra ez dago Alpeetan bakarrik, Europako ekialdean ere elur ugari dago eta oso elur ona gainera.

*"Horren ezagunak ez baina oso interesgarriak diren beste mendilerro batzutan egindako hainbat eski-bidaia; Tatras Garaian, Transilvanian, Bulgarian, Kaukason eta Iranen.*

*Mendi eta herrialde hauei buruzko bideo eta argazki iruzkinduak. Beste leku eta kultura batzuk ezagutzeko aitzakia gisa mendiko eskia".*

---

El martes, día 22, contaremos con la presencia de ***Fidel Mendia*** que nos presentarán su trabajo ***"Esquí de montaña al Este de Europa".***

Fidel es un polifacético alpinista nacido en Pamplona que ha participado en varias expediciones, acometiendo escaladas en Yosemite, los Alpes, el Cáucaso y el Himalaya.

Gran aficionado a la fotografía de montaña donde ha recibido varios premios en concursos y certámenes.

En los últimos años se ha especializado en el esquí extremo o free rider. No solo en los Alpes hay nieve, al Este de Europa hay mucha y muy buena.

*"Varios viajes de esquí por otras cordilleras poco conocidas pero muy interesantes; Alto Tatras, Transylvania, Bulgaria, Caucaso e Iran.*

*Videos y fotografías comentadas sobre estas montañas y países. El esquí de montaña como pretexto para conocer otros lugares y culturas".*





# NIRE MENDIAK

Mis Montañas.

**JUAN VALLEJO**

Urriak 23, Asteazkena.

Igartzako jauregian. 19:30ean

Asteazkenean, hilak 23, ***Juan Vallejo*** eskarmentudun mendigoizalearen txanda izango da. ***"Nire Mendiak"*** izeneko ikusentzunezkoa eskainiko digu.

Juan Vallejo mendigoizale gasteiztarra, Iberiar Penintsulako aktiboenetakoa dela esan daiteke. Mikel Zabalza eta Alberto Iñurrategirekin partekatzen du kordada. Hirurek izendatzaile bereko proiektuei egiten diete aurre, errazenak ez die balio, erronka zailetan bilatzen dute motibazioa, nahiz eta batzuetan amore eman behar izan.

"Ikusentzunezko honetan, azken 5 urteotako espedizioetan bizitako esperientziak kontatzen ditut. Karakorum eta Himalaiako mendirik altuenetara eraman gintuen proiektu berri bat. 6.000m-ko mendi bat, 7.000m-ko beste bat eta azkenik 8.000m-ko hirugarren bat eskalatzeko asmoarekin joan ginen, baina argi generaman gauza bakarra zera zen, gailurrak igotzeak adina motibatzen gintuela saiakera egiteko moduak berak eta horrek, gure indarrak eta gaitasunak ia muturreraino eramatera behartu gintuen saiakera guztietan".

El miércoles, día 23, será el turno del experimentado montañero ***Juan Vallejo.*** Proyectará el audiovisual titulado ***"Mis Montañas".***

Juan Vallejo es alpinista gazteiztarra considerado uno de los más activos dentro del Estado Español. Comparte cordada con Mikel Zabalza y Alberto Iñurrategi, juntos forman un equipo que afrontan proyectos con un denominador común, lo más fácil no les sirve, buscan la motivación de los retos difíciles, aunque para ello en muchas ocasiones tengan que desistir.

*"En este audiovisual relato las experiencias vividas a lo largo de estos últimos 5 años de expediciones. Un nuevo proyecto que nos llevó a las más altas montañas del Karakorum y el Himalaya. Nos propusimos escalar un montaña de 6.000m otra de 7.000m y una última de ocho mil metros con la única idea clara de hacerlo de tal manera, que las cumbres nos motivaran de igual forma que el estilo en que nos propusimos intentarlas, lo que en todas las ocasiones nos llevó a ponernos casi al límite de nuestras fuerzas y capacidades"*.





# BIZITZA ERTZEAN

## Una vida Al Filo

**SEBASTIÁN ÁLVARO**

Urriak 24, osteguna

Igartzako jauregian. 19:30ean

Ostegunean, hilak 24, ***Sebastián Álvaro*** mendigoizale, idazle eta abenturazaleak gidatuko du ***"Bizitza ertzean"*** izeneko hitzaldia.

Sebastián Álvaro "Al filo de lo Imposible" abenturazko dokumental sortaren sortzailea eta zuzendaria izan da 2008. urte amaierara arte, Espainiako telebistan arrakastarik handienetakoa izan duen programetako bat ezbairik gabe. 30 urtetan zehar, abenturarik arriskutsuenak burutu eta filmatzen zituzten tekniko eta ezpezialistek osatutako talde bateko buru eta arima izan zen.

*"Ertzeko bizitza baten istorioak, paisaia eta emozioen mundu batean zehar egindako bidaia da, planetako txokorik ezkutu eta basatienetara egindako 200 espedizio baino gehiagoren laburpen paregabea, mundu bat beste baten barnean, munduaren amaierako mundua.*

*30 urte baino gehiago espediziotan igaro ondoren, "Al Filo de lo Imposible"-ren sortzialeak, Sebastián Álvarok, ezinezko erronkak lortzeko, arriskua kudeatzeko eta ezbeharrei arrakastaz aurre egiteko balioen garrantzia erakusten duen hitzaldia prestatu du. Dozenaka espediziotan lortutako esperientzia pertsonala da, talde errepikaezin bateko arduradun izanda bizitako muturreko egoeretan lortutakoa. Izan ere, balioak eta gaitasunak, talde-lana, sinesten den horretan jarritako pasioa, trebakuntza, elkartasuna, jakinmina, berrikuntza eta sormena baitira, mendia eta abentura, kiroletik haratagoko zerbait bihurtzen dutenak. Abenturen, mendien, zeharkaldien edo hegaldien kontakizuna da, baina batez ere, laguntasunaren eta leialtasunarena da, bizitzaren ertzeko emozioena. Eta era berean, munduari emandako itzuli izugarri bat ere bada, paisaia eta sentimenduen mundu horri, izan ere, Rudyard Kipling idazleak zioen gisan: "Bi eratako pertsonak daude: bizitzari lehiotik begiratzen diotenak eta kanpora bizitera ateratzen direnak".*

Al día siguiente, el jueves día 24, la conferencia tendrá al frente al alpinista, escritor y aventurero ***Sebastián Álvaro q***ue nos ofrecerá ***“una vida Al Filo”***.

Sebastián Álvaro es el creador de la serie de documentales de aventura “Al filo de lo Imposible” y su director hasta finales de 2008, uno de los programas de mayor prestigio de la televisión en España de todos los tiempos. Durante más de 30 años fue líder y alma mater de un equipo formado por técnicos y especialistas capaz de acometer y filmar las aventuras más arriesgadas.

*“Historias de una vida Al Filo, es un viaje por el mundo de los paisajes y las emociones, un resumen inigualable de más de 200 expediciones por los lugares más remotos y salvajes del planeta, un mundo dentro de otro, el Mundo del fin del Mundo.*

*Después de más de 30 años de expediciones, el creador de “Al Filo de lo Imposible”, Sebastián Álvaro, desarrolla una conferencia que muestra la importancia de los valores para perseguir retos imposibles, gestionar el riesgo y enfrentar la adversidad con éxito. Es una experiencia personal adquirida en decenas de expediciones, de situaciones vividas al límite con la responsabilidad de ser el líder de un equipo irrepetible, porque son valores y capacidades, como el trabajo en equipo, la pasión en aquello en lo que se cree, la capacitación, la solidaridad, la curiosidad, la innovación y la creatividad, los que hacen de la montaña y la aventura algo más que un deporte. Es una historia de aventuras, montañas, travesías o vuelos, pero es, sobre todo, una historia de amistad y lealtad, de emociones en el filo de la Vida. Y, al tiempo, es una gran vuelta al mundo, al de los paisajes y el de los sentimientos, desde el convencimiento de que, como dijo el escritor Rudyard Kipling: “Sólo hay dos tipos de personas: los que miran la vida desde la ventana y los que salen fuera a vivirla”.*





# PATAGONIA ERRAIETARAINO

## Patagonia hasta la raiz

**FÁTIMA GIL**

Urriak 25, ostirala

Igartzako jauregian. 19:30ean

Azkenik, ostiralean, hilak 25, ***Fátima Gil*** eskalatzailearekin itxiko da zikloa. ***“Patagonia erraietaraino”*** lana aurkeztuko digu. Iragan otsailean Paineko Dorreetara egindako bidaiaren ikusentzunezkoa, Erdiko Dorreko igoerarekin.

Fátima Gil Espainiako Emakumezkoen Goi-mendiko Taldeko paratide izan da. Oso polifazetikoa da, izan ere, mendiko gida, aktorea eta publizitateko modeloa ere bada.

“Fátima Gilek eta Diego Hernandezek ipuinetako lurraldeetara garamatzate, Argentina eta Txileko Patagoniako ingurune eta eskalada zoragarriekin. Han, poesia, abentura eta adiskidetasuna dantza batean kiribiltzen dira eta dantza horrek, Paineko Dorreetako Erdiko Dorrea igotzera bultzatzen ditu Chris Bonington eta Don Wilhans bide-irekitzaileen urratsei segika. Lagun handiekin partekatzen dute bidea, kondoreekin, Andeetako musikarekin, eskalatzaileekin eta pumekin. Umorez, pasioz eta alaitasunez kargatutako dokumentala, amets handiak egitera gonbidatzeko helburuarekin.

El Finalmente, el viernes 25, se cerrará el ciclo de audiovisuales con la escaladora ***Fátima Gil*** quien presentará ***“Patagonia hasta la raíz”***. Un audiovisual del viaje realizado el pasado mes de febrero coronando la Torre Central de las Torres del Paine.

Fátima Gil ha sido componente del Equipo Español Femenino de Alpinismo. Es muy polifacética, ejerciendo como guía de montaña, actriz y modelo publicitaria.

*“Fátima Gil y Diego Hernández nos transportan a lugares de cuento, entornos y escaladas alucinantes en la Patagonia argentina y chilena. Donde la historia, la poesía, la aventura y el compañerismo se mezclan en una danza que los lleva a intentar ascender la Torre Central de las Torres del Paine, siguiendo los pasos de los aperturistas Chris Bonington y Don Wilhans. Compartiendo el camino con grandes amig@s, cóndores, música andina, escaladores y pumas. Un documental cargado de humor, pasión y alegría con el claro objetivo de invitarnos a soñar a lo grande”.*





# ESKALADA PRAKTIKAK

## ANTZIZAR KIROLDEGIKO ROKODROMOAN

Urriak 26, larunbata

Ikus-entzunezkoen zikloaz gain, ***urriaren 26an, larunbata, Antzizar Kiroldegiko rokodromoan***, ate irekien jardunaldia eskainiko da. Beraz, heldu zein haur, era honetako jardueretara gerturatu eta hastapen urratsak emateko aukera izango da animatzen diren guztientzat. Ekintza honen ordutegia goizean ***10:00etatik 14:00etara*** eta arratsaldean ***16:00etatik 19:30era*** izango da."

---

Además del ciclo de proyecciones, ***el sábado día 26 de octubre***, podremos disfrutar en el ***rocódromo del polideportivo Antzizar*** de una jornada de puertas abiertas que permitirá acercarse a este tipo de actividades a grandes y pequeños, pudiendo iniciarse en este deporte todas aquellas perso¬nas que lo deseen. El horario de esta actividad será a la mañana de ***10:00h hasta 14:00h***, y por la tarde de ***16:00 h a 19:30 h.***



Anbizio handiko egitarau betea eta erakargarria antolatu dugula uste dugu zalantzarik gabe. Ziur gaude bertaratutakoak gustura geldituko direla eta mendiko kirolen topagune, bultzada eta zabalkunderako aukera paregabea izango dela.

Eskerrak eman nahi dizkiogu ***Beasaingo Udalari*** bere laguntza eta elkarlanagatik, horrenik gabe ezingo baikenuke Mendi Asterik antolatu.

***Arrastaka Mendi Taldearen*** eta ***Aizkorri Mendizale Elkartearen*** izenean, orokorrean kirolzaleak zareten guztioi eta bereziki mendizaleak zaretenoi, Beasaingo Mendi Astearen zita honetan gurekin batera parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

---

Sin duda, pensamos que hemos organizado un apretado y ambicioso cartel que a buen seguro dejará muy buen sabor de boca a los asistentes y servirá de encuentro, motivación y divulgación de los deportes de montaña.

Queremos agradecer al ***Ayuntamiento de Beasain*** por su ayuda y colaboración, puesto que sin ella esta Mendi Astea no hubiera sido posible realizarla.

***Desde Arrastaka Mendi Taldea*** y ***Aizkorri Mendizale Elkartea*** invitamos a todos los aficionados al mundo del deporte en general, y de la montaña en particular a que nos acompañen en esta nueva cita de la Semana de Montaña de Beasain.

Arrastaka Mendi Taldea    AIZKORRI MENDIZALE ELKARTEA    Beasaingo udala